

Seber Altuberen nortasuna sakonduz

Jose Antonio Arana-Martija

«LIBURUAREN ZERGATIA»-n bera egin ahal izateko lehen ezagupideak Jose Antonio Arana Martijak eskaini zizkidala esan dut. Jose Antonio dugu Altube, batez ere musiko bezala, gehien aztertu duen gizona.

Bere ardura honetaz jabeturik, Gernikara joan nintzaion nere ideia zein zen azaltzeko. Eta, geroztik, berarengandik jaso dudana laguntza ez da makala izan, ezta urrik ere!

Seberoren mugaketa osoa egiten nabilelarik eta Aranak zekiena aprobeztatu nahian, galdera batzu egin nizkion, haien bitartez Altuberen alderdi musikala ahalik eta hoberen ezagutzeko.

Berarekin uzten zaitut, irakurle, Sebero musikoa ezagutu dezazun.

* * *

Seber Altuberen bitzta eta eginetan sakontzeko asmotan, nere eritzia eskatu didazu, Jose Mari. Badakizu neretzat maitegarrienetako gizon bat izan zala, eta dala, Sebero zure herritarra. Eta maite maite ditugun gizonen alde zeozertxo egiteko beti prest gaudela ere badakizu. Bai; Altube jauna txikitatik ezagutu nuen eta Sebero adiskidearen heriotza orduan hurbil izan nintzan. Zoritxarrez, urte askotan Gerni-

katik urrun bizi izan zanez gero, badago 22 urteko hutsune bat gure harremanetan; baina bere bizitzako azken bost urteetan Gernikan izan genuen eta gizon apal harekin askotan osteretan ibili nintzan eta Arrienean jezarrita ere kamamilla bat baino gehiago elkar hartu genituen.

Egia esateko, elkarrizketa haietan oso zaila zan bere pertsonari zegozkion xehetasunak lortzea. Alde batetik, ni gazte nintzalarik, Seberori zor nion begiruneak gai urguriak erabilikeran ixilik uzten ninduelako; 1958.ko otsailean Pobetik Gernikara etorri zaigunean ezan garairik onena politika arazoak aztertzeke eta arlo hori beti geratzen zan gogoetan eta beste barruko gauzak ukitzen ere ez nintzan ausartzen. Bereak barik bere inguruko, eta gehienetan musikako arazoak baino ez genituen erabiltzen. Baina galdera zehatzak egiten ausartu banintzan ere, ez nuen erantzunik lortuko, Altubek ez zuen nahi ni bere barruan sartzea eta.

Dana dala, bizirik zeuden Segundo Olaeta, Kastor Uriarte, Anakleto Alberdi, Felix Ormaetxea, Felix Irazabal eta beste, Altuberen ikasleak izandakoak eta bere testigantza faltan, banituen lekukoak ugari. Nere osaba Julio Bareño ere, Sebero baino urte bete geroago hildakoa, haren lagun handia izan zan eta beregandik gauza jakingarri asko lortu nituen. Baditut ba iturriak Seberoren gauza gogoangarriak zure liburu eder honetara aurkezteko.

Baina zure galderei erantzuten hasi orduko, utziztazu gauza bat aitortzen: ez duzu lan makala egin, Jose Mari! Zugaz zorra bait daukagu gernikarrak eta euskaldun guztiak. Lehendabiziz gauza bat esango nizuke: halako monografia bat egiteko zeure bihotz osoa urtu duzula bertan; eta hortan duzu meritu guztia, bihotz beroz egindako monografia izan arren, bihozberako eta ahoberozko lana ez duzu idatzi, zehatz eta zintzoa baino. Halako ikerpenetan gabiltzanok badakigu bihotzak buruari eman behar diola lehentasuna; baina bihotzaren zirikadarik gabe ez dira halako lanak hasten. Eta hor dago kontua: nora arte iritsi behar du bihotzak bihozkeri bat ez izateko? Zuk, Jose Mari, buruak markatutako bidea eta neurria jarri diozu bihotzari Seber Altube aipatukeran. Eskerrik asko!

Orain sei urte Arrasaten egindako bilkura baten, Altube musikua aipatu nuen. Zuk, liburu honetan, hainbat eta hainbat gehigarri ematen dizkiguzu Altube musiku bezela estudiantzeko. Gogoangarriak dira benetan Benignorekin dultzaineru bezela egin zituen pausoak eta haien artean biori ahaztu zaigu lehenetariko bat aipatzea: Bermeoko jaietan, 1897.ko irailean, sari bat irabazi ondoren, Zumarragara joan ziran Benigno, Sebero eta Kristobal Legazpiri herriak eskaini zion oroitarria azaldu zanean, urte bereko urrilaren bian. EUSKAL ERRIA albistarian azaltzen zaigu berri hau (97.X.10, 280 or.) eta Benigno agertzen da

Arrasateko dultzaineruen zuzendari. Ez zuen oraindik Seberok, musiku bezela, ixiltasunetik irten.

* * *

Nik Altube jauna ezagutu nuen denporako giroa aipatu nahi det. Bost urte nituen eta Gernikako Ikastolara nenbilen. Ikastola hau lehenengoz Industria kalean zegoen, baina gerotxoago Mazarredoren jau-regira eraman zuten aita jesuiten babespean jarriz. Han ezagutu nituen Goikoetxea eta Olabide jaunak. Karmelo Etxegarai 1925.ean hilda zegoenez gero, euskaltzain bi ziran orduan Gernikan: Olabide gasteiztarra eta Altube arrasatetarra. Bien artean harreman hestuak izan arren, ez nuen Altube Ikastolan ezagutu, Batzokian baino. Batzoki hau 1931.ko Aberri Egunean zabaldu zan, orain Arrienen taberna dagoan inguruan. 1936.an sari bat antolatua izan zan Ikastolako haurrentzat eta nik ere parte hartu nuen jai horretan. Sari emailen artean Sebero zegoen eta han ezagutu nuen edo han lehendabiziz ikusi nuelakoan nago.

Euzko Alderdi Jeltzailekoa zan Sebero orduan. EUZKADI egunkarian irakurten dan bezela (30.X.23) Urrileko 18.an Gernikako Lizeo Antzokian biltzar bat eratu zuen Alderdiak eta biltzar horretan Diruzaintzarako Jose Berrojalbiz hautatua izan zan, eta hurrengo biltzarrerako mandatarari gure Sebero. Batzoki bat Gernikan jartzeko gaia ere erabili zan eta arazo hori aurrera eramateko Batzorde bat eratu zan jaun hauekin osotuta: Seber Altube, Damian Gangoiti, Rikardo Luzarraga, Juan Gezuraga, Karmelo Uribe, Jesus Ugalde, Tomas Gomeza, Antonio Pertika eta Jose Inazio Arana. Lehen esan dotan bezela, hurrengo urteko Aberri Egunean zabaldu zan batzokia.

Errepublika sortu berria zan egun haietan. Eta 1931.ko Apirilaren 17.an, Errepublikari onhartze eta babesa emateko, Gernikako Batzar Etxera izan ziran deituak Bizkaiko 120 Udalbatzak. Baina bilkura hau eta bere inguruko jaialdiak debekatuak izan ziran, indarrez noski: 300 soldadu azaldu ziran hiriko plazan, 6 metrailadore beko kaleetan eta beste 6 goikoetan, eta goardazobilak ugari kale guztien zehar. Horrez gainera orduko Alkate zan Ismael L. Francesen bando bat azaldu zan herrian: *«Hago saber que ante la manifestación convocada por el Partido Nacionalista Vasco de la derecha... se abstenga el pueblo de participar... para evitar un día de luto»*. Handik hile bi barru, Altube Gernikako Alkate hautatu zuen herriak.

Orditik hona Altuberren izena gernikar guztien bihotzetan idatzita dago. Baina garai hartan beste toki baten ere marraztua izan zan Seberoren izena. Uste genuen Altuberren izena ezala goratu 1967.an «Seber Altube Ikastola» eratu arte eta 1975.ean «Auditorio Severo Altube» eraiki arte. Baina 1932.tik dago Seberoren izena harrian idatzita eta ez du inork kendu. 1930.ean, Azaroaren 30.ean, orduko Parroko

Jauna zanari, Jose Domingo Iturrarani hain zuzen, omenaldi bat zuzendu zioten bere eliztarrak. Omenaldiak Euskalerrian beti eratzen dira bazkaria barru dalarik, eta orduan ere 150 bazkalkide bildu ziran Taberna Vasca jatetxean. EUZKADI egunkarian (30.XII.2) ikusi dezakegun menu ezan gose izatekoa: «*entremeses variados, sopa de tapioca, paella valenciana, fritos variados, cola de merluza con espárragos, pollo asado con buñuelos, postres variados, vinos Rioja y Valdepeñas, café y copa*». Erdia bere ez zuen jango Seberok, seguraz. Kontua da, mahai-ondoan Iturraran jaunak proposatu zuen Gernikatik Lumorako bidean harrizko Gurutzebide bat eraikitzea. Eta proposamena onhartua izan zanez gero, Txikerra arginari agindu zioten gurutzeak egitea. 1932.rako Gurutzebidea eraikita zegoen; 2,20 metroko gurutzeak dira eta gomutagarri bat dute denak idatzita. Hamalau gurutze artean, bi bakarrik daude euskaraz idatzita: VI. *Pilar Barbierren gomutan*, eta X. *Altube-tar Seber-ek ordaindua*. Horra hor non dagon Altuberen izena 1932.an harrian jarria eta inork kentzen ausartu ez dana.

* * *

Euskara. Euskara zan, bai, Altuberen ardurarik handiena. 1911.an argitaratu zan bere lehenengo lana, EUSKAL ESNALEA aldizkarian. Baina ordurako hasita zegoen alor honetako lanetan. Azkuerekin harremanetan lehendik zebilen gure Sebero, 1909.enetik gutienez; abesbatzen kursoak zirala eta, 1904.an ezagutuko zuen Altubek Azkue jauna, Donostiako sariketan epai-mahaikoa zalarik. Gero Azkuek atzerrira jo behar zuen bere Hiztegia argitaratzeko (Tours, 1904-1906) eta musika ikastaldiak Brusselen eta Kolnen egiteko (1907-1909). Aldi honetan postaz komunikatzen ziren Altube eta Azkue. Eta euskara zan harremanetako gaia, noski. Euskaltzaindiko artxiboan daude Altubek Azkueri zuzendutako gutunak eta hoiaren artean batek 1909.ko otsailaren 8.ko fetxa darama. Menbreteak hau dio: «Fonda del Progreso — Domingo Nuñez — Se alquilan toda clase de carruajes para viajes particulares — Gernica y Luno». Han zegoen ostatuta Sebero Altube, eta handik egun horretan Azkueri idatzi ziona hau zan:

Adjunto le envío otra serie de palabras. De las que me envió para ver si se empleaban en Oñate apenas he podido sacar nada. Creo que fuera de *Utzontsi* que, me aseguran se emplea por *Itzontsi*. Le envío también un trocito de una carta en la que aparecen algunas palabras curiosas. A ver si saca usted algún fruto. Supongo que serán de (B. mond.) pues no dice la procedencia y la carta y el que me escribe son de allí. Cuándo pero cuándo va a aparecer el tercer tomo? Mande a su affmo. ss. Severo de Altube.

Euskaltzaindiko artxiboan badago beste gutun interesgarri bat ere, Altuberen biografia osotzeko gai dana. Euskaltzaindia sortu zanean, Aita Pierre Lhande hautatua izan zan «EUSKERA» aldizkariaren zuzendaria. Eta euskaltzainen biografiak osotzeko, bakoitzari eskatu zion Aita

FONDA DEL PROGRESO

DOMINGO NUÑEZ

SE ALQUILAN

TODA CLASE DE CARRUAJES

PARA

VIAJES PARTICULARES

GUERNICA Y LUNO

8 - Febrero - 1909.



Sr. D. R. M. de Alkue

Ajuntó le envío otra serie de palabras. De las que me
envío para ver si se empleaban en Oriate apenas le podría
sacar nada. Creo que fuera de Utrantsi que me aseguran
se emplea por Utrantsi.

Le envío también un trocito de una carta en la que aparecen
algunas palabras enviadas a ver si saca algún fruto.

~~Alcicquacoo~~ Simpson que serían de (D. mund.) pues no sé la
procedencia y la carta y el que me escribe son de allí.

Cuando pero cuando va a aparecer el 2^o tomo?

Mande a su aff. S. S.

Servicio de Alkue



Lhandek bere biografi laburra. Hara nola eman zion Altubek bere bizitzaren laburpena:

Gernika, 1920-VIII-14
P. Pierre Lhande
Hernani.

Adiskide ona! Zuk agindutako lana beti egiteko ta beti atzera... Nire orain arteko bizitza ta lanak eztabe ezer deus danik eta gaitz zure eskabide ori ganoraz betetzen. Baña jegin daigun ba zerbait!

Emen iminten deusudaz zeure eskabide orreri buruz gogoratzen yatazan gora-bera batzuk, eta euroctatik artu egizuz egokien deritxo-ozuzanak eta bota bazterrera besteak.

Izen-abizenak: Altube ta Lertxundi'tar Seber (Severo).

Jaioterria: Arrasate (Mondragon) Gipuzkoa.

Jaiotzeguna: 1879 gn. Azaroaren 8 gnean.

Ikaskuntzak: Arrasate'n bertan, 1895 gn. urtetik 1902 gn. rarte.

Títulos, cargos, oficios: 1902 gnetik 1918 rarte Gernikako eres-batz* arteztzaile, toki au indar-neurketaz (por oposición) irabazi-ta. 1930 gnetik ezkeru Gernika'ko abes-batz** arteztzaile (batz onekin guda-keta gogorak irabazi ditu, Gernika'n, Bilbo'n eta Donostia'n; emen birritan, eta bigarrenetan, 1907 gn. urtean, 109 laguneko beste abes-batz baten kontra 28 lagun soil-soilekin jokatuta). 1915 gnez. gero, Gernika'ko «*Alkartasuna*» su-izkiluak egiten dituan batz-izengearen*** arteztzaile da.

Idazkiak: Euskereari buruz jardun izan dabon eta diarduten aldizkingi (revista) geyenetan idatzi dau euskereari buruz zerbait. Idazkirik nagosienak, bat 1913 gn. urteko «*Euskal Esnalea*»n, -z, -tzaz, -zaz eta -taz atzizkiai buruz; eztabaidea Ignacio M.^a Echaide jaunakin. Beste bat 1919 gn. urtean, «*Euskal Esnalea*»n, au be (gero beste liburuxka baten birrargaratuta) «*De Sintaxis Euskerica*» izenaz.

Orra or nire lan eta gora-berak. Agur, orain, eta agindu zeure adiskide eta otsein oni. Altube'tar Seber.

* Banda de música.

** Orfeón.

*** Sociedad Anónima.

Idazki hau hartuta, Aita Lhandek biografi labur bat eman zigun «EUSKARA» aldizkarian (1920, I zenbakia, 20-21 or.) baina oker handi bat iragazi zan argitalpenean: Altuberen helbidea emakeran, hala dio Euskeraren 21.gn. orriak: *Etxea: Gernika, Gipuzkoa.*

Orain arte erabili ez dugun fetxa bat ematen digu hemen Seberok: 1902.an etorri zala Gernikara dio gutun honetan. Eta nik orain arte 1901.ean etorri zala uste nuen. Errazoia du Seberok eta hara zergaitik edo nola baieztatu dezakegun dato hau. Gainera, nik uste nuen opozi-

zioetan «COR JESU» Bandarako martxa egin zuela eta ez da egia, urte bi lehenago egindako musika lana da eta. Baina goazen astiro argia egiten.

Aita Lino Akesolok esan zidan, denporatxua dala, Donostiako Karmeldarren Konbentuko organulari dan Aita Endrike Albizuriren eskuetan zegoela Altuberen musika koaderno bat. Donostiara joan eta Gernikara ekarri nuen koaderno hori: 210 orri ditu, 20 x 30 zentimetro duna. Lehenengo orrian hala dio: CURSO PRACTICO DE CONTRAPUNTO, FUGA Y MELODIA DE SEVERO ALTUBE Y L. CON EL PROFESOR D. V. BALERDI. DEL METODO DE D. H. ESLAVA. Hurrengo orri guztiak musikaz beterik daude. Hara laburrean liburuaren atalak:

- Contrapunto según la Escuela Antigua (sobre cantollano) (2, 3 y 4 voces). Contrapunto florido (3, 4, 5 y 6 voces). Contrapunto según la Escuela Moderna (sobre canto de órgano) (2, 3 y 4 voces). Guztira, 35 orri.
- Trocado según la escuela antigua (2 y 3 voces). Trocado según la escuela moderna (2 y 3 voces). Guztira 5 orri.
- Imitación. Contrapunto imitado según la escuela antigua. Contrapunto imitado según la escuela moderna (4 voces). Guztira, 8 orri.
- Canon. Cánones de la escuela antigua (2, 3 y 4 voces). Cánones de la escuela moderna (2 y 3 voces). Guztira, 10 orri.
- Fuga. Fuga tonal antigua a 2 voces. Fuga tonal moderna a 2 voces. Fuga real moderna a 4 voces. Fuga mixta moderna a 4 voces. Guztira, 78 orri.
- Melodía. Discurso musical. Frases ordinarias, extraordinarias y de la forma mixta. Períodos para tiple, tenor, tenor agudo, Contralto, Baritono, bajo y tiple aguda. Guztira, 11 orri.
- *Benedictus*, para tiple y órgano.
- *Melodía*, para tiple aguda, sin letra, para órgano.
- *Ave María*, para tiple y órgano.
- *O salutaris*, para bajo y órgano.
- *Ave verum*, a dos voces y órgano.
- *O salutaris*, a 3 voces y órgano.
- *O salutaris*, a 4 voces y órgano.
- *Miren Neskutzari Orrileko lorak*, a 3 voces mixtas y órgano.
- *Melodía* compuesta en las oposiciones de Gernika. 26 de Diciembre de 1901.
- *Versos de Visperas*. Primer tono, para órgano.

- *Fugueta* para órgano.
- *Versos* del segundo tono.
- *Fuga* para órgano.
- *Versos* del tercer tono.
- *Elevación* para órgano.
- *Versos* del 4.º tono.
- *Fuga* a tres voces.
- *Versos* del quinto tono.
- *Ave verum*, a dúo de tenor y bajo y órgano.
- *Versos* del 6.º tono.
- *Canon* a 4 voces.
- *Versos* del 7.º tono.
- *Bajete* numerado y armonizado en las oposiciones de Gernika.
- *Versos* del 8.º tono.
- *Cor Jesu*. Marcha regular para banda militar presentada en el Cuarto Concurso de la Asociación de Profesores de Música. 28 de Septiembre de 1899, en San Sebastián.

Koadernoaren hirurogei azkenengo orrietan daude bereziki aipatu-tako ereslan hauek. Harritzekoa da Koaderno honen mamia, hogeitredun gazte batek egindakoa baita. Azterketa egin aurretik finkatu behar dana da Altubek Gernikako oposizioak 1901.eko Abenduaren 26.an egin zituela eta Eres-batz edo Bandaren zuzendaritza irabazi eta 1902.an Gernikara etorri zala. Nahiz eta oposizioetara COR JESU mar-txa aurkeztu, urte bi lehenago eginda zegoala ere baieztu genezake.

Eslabaren metodoaren arabera egin zituen Altubek bere ikastaldi-ko ariketak, Bitoriano Balerdi irakasle zalarik. Eta hala izan behar, Balerdi Eslabaren eskolako zan eta. Bere lehenengo musika pausoak 1877.an egin zituen Balerdik Alegian, bertako Juan Jose Oinaederra orga-nulariarekin. Gero, eta 1883 arte, Tolosan izan zan Felipe Gorritiren ikasle. Orditik hasi zan ba Eslabaren eskolako arauak ikasten. Baina 1883.an Madrilera joan zan, bertako Konserbatoriora eta Pianoa Men-dizabalekin, Harmonia Hernandorekin eta Konposapena Arrietarekin ikasi zuen. Ikaskintza guztiak amaituta, Arrasatera etorri zan 1892.an. Eta, jakina, Eslabaren metodoa erabili zuen ikasleei musikako sail guztiak irakasteko. Ikasleen artean, gure Sebero eta Aita Otaño. Hara zer dion azkenengoak maisuaren ohorean: «*A los esfuerzos de Balerdi y Gorriti en las Vascongadas ha sucedido toda esa moderna legión de jóvenes admirablemente formados que sólo necesitan buenos órga-nos...*» (REVISTA MUSICAL, 1913).

Balerdiren babesean ibili zan ba Sebero Gernikako kargua irabazi arte eta orain eskuratutako koardernoan ba dauzkagu ezagutu gabeko musika lanak eta bere musika jakituria neurtzeko agiriak. Ariketak adierazten digutena da oso trebea zala Altube musika gaietarako eta Gernikara etorri orduko meneratuta zeukala musikagintza.

Baina Gernikara etorri eta, ezan eremu baten aurkitu. Jose Franco aipatzen zuen Seberok musikurik trebeen artean. Aragoar hau, arrasatetarra baino zazpi urte gazteagoa, Bermeora iritsi zan 1902.an hango Bandaren zuzendari bezela. Biak heldu ziran ba batera Busturialde-
ra. Organulari berri bi ere orduan etorrita zeuden Gernikan eta Bermeon: Juan Ojanguren eta Endrike Larrea, durangoarra eta zornotzarra. Ez da ba harritzekoa Seberoren inguruan sortu zan musika giroa eta musika teknikak hobatzeko gogo eta beharrizana. Jose Franco 1915 arte egon zan Bermeon, Irungo Bandara deitua izan arte. Bizpahiru urte barru utziko du Seberok Gernikako Bandaren zuzendaritza Manuel Gainzaren eskuetan. Eta ordurako harmonizapen eta instrumentapenerako teknikak guztiz meneratuta zeuzkan Altubek.

Dakigunez, 1903.ean sortu zuen Altubek Gernikako Abesbatza, eta berehala hasi zan herriko melodiak lau abotzatarako harmonizatzen; hoi-
en artean, MARIJESIAK. Poz handi bat hartu dut egunotan: Altuberen jaiotzako ehunurteburua dala eta, Errenteriako Musikastekoek go-
goan izan dute fetxa oroigarri hau eta Maiatzaren 17.an Seberoren MARIJESIAK Gernikako Andra Mari Koralarekin abestutea eskatu dida-
te. Gernikako MARIJESIAK! Ene ustez, 1901.ean, azterketeta egunetan en-
tzungo zituen Altubek lehendabiziz Marijesiak. Orduan, eta orain ere,
ohiturari jarraituz, Abenduaren 16.ko goizaldean hasi eta bederatzi egun
zehar abestuten dira Jesukristoren jaiotza aipatzen duten koplak. Ha
zan musika zoagarria musiku herritar batentzat!

*«Abendu santu honetan
Kristoren jaiotzia
kontentu haren handiz
guztiok poz gaitian.
Maria Jose, Jesus Maria».*

Berehala hasten da Sebero abesti hori harmonizatzen eta lau gi-
zonen abotzatarako apaintzen du hasiera baten. Geroago, zazpi abotz
nahastuentzat harmonizapen bat asmatuko du. Eta hau da orain Erren-
terian abestuko duguna. Oso ederra eta zaila.

Gerra ostean, 1952 inguruan, abestu genuen lehendabiziz abesti
hau Segundo Olaeta jaunaren zuzendaritzapean. Gero, 1957 inguruan,
Gernikako Santa Zezilia Koralak ere baten baino gehiagotan abestu
zuen toki askotan. Eta orduan, Koralaren idazkari nintzalarik, karta
bat idatzi nion Altuberi Pobera lan honen historia eta berezitasunak
eskatuz. Ez nuen idatzitako erantzunik hartu, baina Julio Bareñoren

bitartez esan zidan Seberok laster Gernikara etorteko asmoetan zebilela eta bertan nigaz egoteko gogoia zeukala. 1958.an etorri zanean, Aste Santu barruan, izan nuen berarekin lehenengo elkarriketa. Orduan jakin nuen 1922.an zazpi abotzatarako harmonizapena egin zuela.

Altuberen musika lanak estudiantukeraren gauza bat nabaritzen zaigu argi eta garbi: herriko musikaren maitale zala. Bazeukan Seberok musika sakon eta landuetan sartzeko trebetasuna eta ahalmena bere ariketetan azaltzen dan bezala. Eta bide horretatik jo bazuen, garaiko maila batera helduko zan seguraz. Baina musika herrikoiaren bidetik jo zuen eta xehetasunetan izan zan garaile. Adibide bat daukagu kasu honetan. Azkuek, Kolnetik etorrita, ORTZURI opera estrenatu zuen Bilbon, eta bigarren opera bat asmatzen hasi zan berehala. Bazekian Azkuek Altuberen balioa eta URLO operaren zati batzu ikustera deitu zion. Hara hemen Altuberen erantzuna:

Gernikatik, 17-II-1912.

Neure jaun eta adiskide: Martitzenian bertan daukat nik musikarik asko *Urlo* ezpada be *Urloi* antzekoa. Badaki egun ori Aratoste irugarrena dana eta marro edo kokomarroen eguna dana eta euroi dantzan eragin biar daijoedana. Aste orretan beste edozein egunetan pozarren joango nintzateke. Agur bada, Altube'tar Seber.

Ahoa zabalik geratuko zan Azkue: bere «URLO» baino kokomarroen dantzak maiteago izan! «Txotxolo» bere esango zuen besteren batek marroen eta beste holako «txotxolokerietan» zebilelako gure Sebero. Baina berak nahiago zuen herriaren bihozkadak entzun goiko mailako azterketetan ibili baino. Eta Seberori esker iraun dute idatzita txistularientzat «ARATOSTEKO ZORTZIKOA», «SANDROKEREN ZORTZIKOA», e. a. Musiku lokalista bat dala Altube? Herrikoa esango nuke, herrian errota; baina ez akazdun bezala, herriaren balorea nabaritu nahi duan gizonak ez du akatzik eta.

Garai hartan, Azkue bere kantutegia osotzen zebilela, Altube ere bere laguntzaile izan zala badakigu. Eta kantutegi hori argitaratu zanean, Altubek emandako bederatzi abesti agertu ziran:

- 336. — Zezenetakoa, Gernikakoa
- 351. — Aratosteko Zortzikoa, Gernikakoa
- 352. — Zezenetakoa, Arrasatekoa
- 353. — Aratosteko Zortzikoa, Gernikakoa
- 926. — Belenengo Urian, Gernikakoa
- 932. — Ea bada Josepe, Arrasatekoa
- 957. — Josepek dirautso, Gernikakoa
- 979. — Santa Iageda, Gernikakoa
- 999. — Urte barri, Gernikakoa

Azkuek dion bezala, kantu guztiak «*transcritos por el hábil y benévolo colaborador*» izan ziran. Hara hemen Altubereren argazkia: trebe eta borondate oneko gizona. Beste ohartxo bat zerrenda hori ikusita: Gernikara etorri eta lehenengo egunetan herritik hartutako melodiak ziran Azkueri emandakoak; 1912.rako bazeuden Azkueren eskuetan: Arrasatekoak oraindik ahaztu gabekoak, eta Gernikakoak entzun berriak. Hauen artean gai bi dira nabarmenak: Zezen eta Aratoste gaiak eta Gabon inguruetako abestiak. Horra hor Altubereren musika lanetarako gaiak: ZEZENAK DIRA eta MARIJESIAK.

Baina Sebero etzan konformatu abestiak herritik hartu eta musika paperetara eramanagaz, ezta ere abotzetarako harmonizapenak egi-teagaz soilik. Herriko musikaren arima ere estudiatu zuen eta hor daukagu berak egindako aurkikuntza bat. Herri baten musikaren oinharria hizkuntza dala esan zuen Seberok, eta liburu honetan beste toki baten ikusi dezakegun gauza da. Eta hizkuntzaren doinutik sortzen dan herri musika askotan konpasagaz lotu ezinezkoa dala ere esan zigun Altubek. Hau ikusi eta asmatu zuen «kolpaketaren» teori berria: euskal musikari sarri askotan konpasaren neurria baino bi edo hiru kortxeen mordo bat dagokio. Gure musikak gregorianoakin daukan beste lotura bat ematen digu kolpaketaren teoriak, tonalitateetatik aparte, gregorianoko neumekin badute zerikusirik euskal musikaren kolpaketak eta.

Musikaegile bezala ez bada Altube goiko mailakoa, ikerpenetan badugu lehenetarikoa eta euskal musika estudiatu nahi duanak nahi eta nahi ez jo beharko du Altuberengana.

Oraindik estudiatu gabe dagon alorra, nik dakitanik beintzat, Anbrosi Zatarainek eskuetan daukan dokumentazioa da, hots, berak, Orixeek, Leizaolak eta Altubek, 1943.aren inguruan heuren artean izandako gutunak. Metrikari eta azentoari dagozkion eztabaidak oso interesgarriak dira eta bizirik diran biak teori bat finkatu beharko lukete.

* * *

Barriri nator MARIJESIETARA Seberok gehien maitatzen zuen bertsoa zera zen:

*«Bilosik bazagoz ere
ezara zu pobria;
zeruan josirik dago
zuretzako erropia».*

Horregaitik bere Marijesiak harmonizatukeran, bertso honi egin zion harmonizapen berezia: andrazkoen hiru abotz bakarrak erabili zituen bertso hau kantatzeko. Lortuko zuen bere saria Seberok eta mun-

du honetako atsekabeak gainditu ondoren, jantziko zuen zeruan berarentzat jositako erropia.

Gernikako kanposantuan dago lurperatuta gure Seber Altube; eta hilobian, bere borondatea errespetatuz, jarri zioten musika eta guzti, Marijesiaren hasiera:

«Abendu santu honetan...»

Agur jauna, maisu eta adiskide, Seber Altube eta Lertxundi.



vel

EBERO ALTUBE

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

LUNO GUERCA